



# EUSKADIKO ORKESTRA

FERNANDO VELÁZQUEZ (ZUZENDARIA/DIRECTOR)

Klasikotik zinemara / Entre lo clásico y el cine

**29** Ostirala/Viernes  
azaroa  
noviembre

**GETXO**  
Muxikebarri  
Sala Ereaga Aretoa

19.00



# Klasikotik zinemara

## Entre lo clásico y el cine





# Egitaraua Programa

## 1. zatia / 1.<sup>a</sup> parte

**G. ROSSINI:**

*El barbero de Sevilla. Obertura*

**J. GURIDI:**

*Diez melodías vascas*

## 2. zatia / 2.<sup>a</sup> parte

**F. VELÁZQUEZ:**

*Lope. Suite*

*Soinujolearen semea. Suite*

*Lo imposible. Suite*

*Gernika. Suite*

*Zipi y Zape y la isla del capitán*

# Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Eusko Jaurilaritzako Kultura Saitetik bultzatu eta garatua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa 1982an jaio zen musika ondasun partekatu eta ondare aberats gisa hartzen duen gure gizartean. Orkestra, ondorioz, ondare horren gordailuzaina da eta, halaber, aipatua hedatzeko eta garatzeko konpromisoa hartu du. Estatu-mailan erreferentzia den talde sinfonikoa da egun, bere erkidegoan sendoki errotutako taldea, **7.000 abonatu eta 150.000 batezbesteko ikuslerekin urtean**. Bere garaiko orkestra bat da, eskakizun-maila oso handikoa eta garai guztietako musika sinfonikoa hedatzeko konpromiso irmoa duena, baina arreata berezia eskaintzen diona euskal musikaren sorkuntza eta hedatzeari.

Ondo finkatu eta ondo egituraturiko jarduera bati esker, modu iraunkorrean jarduten du **lau kontzertu-ziklotan (Gasteiz/Principal Antzokia, Bilbo/Euskalduna Jauregia, Donostia/Kursaal eta Iruñea/Baluartea)**, eta ganbera-musikako eta haurrentzako eta familientzako beste bi ziklo ere antolatzen ditu. Era berean, oso politika diskografiko bizia dauka, batez ere euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoa ardatz duena. Sarri parte hartu ohi du **Operaren denboraldian (ABAO) eta Bilboko Musika-Música jaialdian, Donostiako Musika Hamabostaldian eta Zinemaldian, Musique en Côte Basque jaialdian, Ravel jaialdian eta Musikasten**, besteak beste. Horrez gain, gure lurraldeko hainbat herritan aritzen da, Getxoko kontzertu honen kasuan bezala. Hogeita hamar bider baino gehiagotan egon izan dira herri honetan.

Jakin badakite filmen soinu-bandak euskarri oso erakargarria direla musika sinfonikoa publiko zabalarari helarazteko. Hala, beren sinadura daramate honako filme hauen soinu-banda originalek: *Un monstruo viene a verme (Goya 2017)*; *El mal ajeno*; *Ocho apellidos vascos*; *Submergence*; *Elcano, primera vuelta al mundo* eta *Soinujolearen semea*. Guztietan egin dute lan Fernando Velázquez konpositore eta zuzendari getxotarraren eskutik. Orkestrak nazioarteko bokazioa ere badu, eta 18 kontzertu-bira egin ditu; besteak beste, Argentinan, Brasilen, Txilen, Alemanian, Austrian, Suitzan, Frantzian, Britainia Handian eta Italian.



# Orquesta Sinfónica de Euskadi

La Orquesta Sinfónica de Euskadi nace en 1982 en una sociedad en la que la música es un bien compartido, un rico patrimonio del que la Orquesta es depositaria y asume al mismo tiempo el compromiso de divulgarlo y fomentar su desarrollo. Hoy somos una formación sinfónica de referencia a nivel estatal, una agrupación con cerca de **7.000 personas abonadas y una media de 150.000 espectadores anuales**; somos una orquesta con un altísimo nivel de exigencia y firmemente comprometida con la difusión de la música sinfónica de todas las épocas, pero que atiende con especial énfasis a la creación y expansión de la música vasca.

Gracias a una asentada y bien estructurada actividad, actuamos de manera permanente en **cuatro ciclos de conciertos (Vitoria-Gasteiz/Teatro Principal, Bilbao/Palacio Euskalduna, Donostia-San Sebastián/Kursaal y Pamplona/Baluartte)**, celebramos otros dos ciclos dedicados a la música de cámara y al público infantil y familiar, y desarrollamos una intensa política discográfica centrada fundamentalmente en la producción sinfónica de compositores vascos. Participamos asiduamente en la **Temporada de la Ópera (ABAO)** y en el **festival Musika-Música en Bilbao, en la Quincena Musical y en el Zinemaldia de San Sebastián, en el Festival Musique en Côte Basque, Festival Ravel, Musikaste, etc.**, así como en diferentes localidades de nuestra geografía, como es el caso de este nuevo concierto en Getxo, a donde hemos acudido casi en una treintena de ocasiones.

Conscientes de que las bandas sonoras de películas resultan un soporte muy atractivo para hacer llegar la música sinfónica al gran público, hemos firmado las BSO de *Un monstruo viene a verme (Goya 2017)*; *El mal ajeno*; *Ocho apellidos vascos*; *Submergence*; *Elcano, primera vuelta al mundo* o *Soinujolearen semea, siempre de la mano del compositor y director getxotarra Fernando Velázquez*. La Orquesta cuenta también con una gran vocación internacional que le ha llevado a hacer 18 giras de conciertos por países como Argentina, Brasil, Chile, Alemania, Austria, Suiza, Francia, Gran Bretaña e Italia.



# Fernando Velázquez

ZUZENDARIA / DIRECTOR

Fernando Velázquez (Getxo, 1976) konpositore eta orkestra-zuzendari ospetsua eta sari ugari jaso dituena, Espainia eta AEBko zinema eta telebistarako musikagileen belaunaldi berriaren adierazle nagusia da. Bere ibilbide luzea 1999an hasi zuen, eta 50 film luze eta estatuko nahiz nazioarteko telesailak hartzen ditu barne. Horiez gain, kontzertuetako obrak, antzerkiko musika intzidentala eta denetariko artisten enkarguak sartzen dira bere katalogo zabalean.


Espainiako eta nazioarteko zuzendari handientzat lan egin du; esate baterako, Juan Antonio Bayona, Patricia Ferreira, Mateo Gil, Emilio Martínez Lázaro, Guillermo del Toro, Nacho Vigalondo eta Wim Wenders. Estilo berezia du oso, sinfonismo post-erromantikoaren eta Hollywoodeko konpositore handien oinordekoa, melodikotasun handia duena, eta orkestraren tinbrearen ezagutza sakona nahiz *tempoen* kontrol dinamikoa. Hala, soinu-banda bakoitza artelan bat da bere horretan.

Bere ibilbidearen baitan, J.A. Bayonarekin duen harremana nabarmendu behar da. Berarekin lan egin zuen *El orfanato* (2007) eta *Lo Imposible* (2012) filmetan, eta biak izendatu zituzten musika original onenaren Goya sarirako. Bada, azkenik 2017an lortu zuen garaikur hori, *Un monstruo viene a verme* lanarengatik. Feroz saria eta Zinema Idazleen Zirkuluko Domina ere irabazi zituen. Bere ibilbidean zehar lortu dituen beste aitorten batzuk izan dira ASCAP Film and Television Music Award eta International Film Music Critics Award (IFMCA) sariak.

Lanik berrienen artean honako hauek nabarmendu behar dira: *Lo nunca visto* (Marina Sereskesy, 2019), *Durante la tormenta* (Oriol Paulo, 2018), *70 Binladens* (Koldo Serra, 2018), *El hijo del acordeonista* (Fernando Bernués, 2018), *El guardián invisible* (Fernando González Molina, 2017), *Deep* (Julio Soto Gurrupide, 2017), *Inmersión* (Wim Wenders, 2017), *Ocho apellidos vascos* (Emilio Martínez Lázaro, 2014), *Savage Grace* (Tom Kalin, 2007), *Mama* (Andrés Muschietti, 2013), *La cumbre escarlata* (Guillermo del Toro, 2015).

Gainera, musika jarri die *Karabudjan* (2010) eta *Gominolas* (2007) telesailei eta Netflixeko *Apaches* (2017), *La otra mirada* (2018-2019) eta *Diablero* (2019) sailei. HBO Espainiaentzako Arambururen liburu arrakastatsuan oinarritutako Patria ekoiztuko du, bai eta antzerkirako ere.

Honako hauen zuzendari izan da, besteak beste: Euskadiko, Madrilgo Erkidegoko, Malagako, Nafarroako, RTVEko, Sevillako eta Budapesteko Irratiko orkestra sinfonikoak, Londreseko Orkestra Filarmonikoa, London Metropolitan eta Orkestra Nazional Txekiarra. Horrez gain, Amancio Prada, Ken Zazpi, Raphael, Doctor Deseo eta Pasión Vegaren diskoak eta zuzeneko kontzertuak ekoiztu ditu, besteak beste.



El multipremiado y reconocido compositor y director de orquesta Fernando Velázquez (Getxo, 1976) es el máximo exponente de una nueva generación de autores de música para cine y televisión en España y EE. UU. Su prolífica carrera, iniciada en 1999, incluye más de 50 largometrajes y series nacionales e internacionales, a los que se suma un importante catálogo de obras de concierto, música incidental de teatro y encargos de todo tipo de artistas.

Ha trabajado para grandes directores españoles e internacionales como Juan Antonio Bayona, Patricia Ferreira, Mateo Gil, Emilio Martínez Lázaro, Guillermo del Toro, Nacho Vigalondo o Wim Wenders. Su inconfundible estilo, heredero del sinfonismo post-romántico y de los grandes compositores de Hollywood, se caracteriza por un gran sentido melódico, un exhaustivo conocimiento tímbrico de la orquesta y un control dinámico de los *tempos* que hacen de cada banda sonora una obra de arte en sí misma.

Dentro de su carrera destaca su relación con J. A. Bayona, para el que realizó *El orfanato* (2007) y *Lo Imposible* (2012), ambas nominadas al Goya por la Mejor Música Original, logrando finalmente este galardón en 2017 por *Un monstruo viene a verme*, además del Premio Feroz y la Medalla del Círculo de Escritores Cinematográficos. Otros importantes reconocimientos en su trayectoria son el premio ASCAP Film and Television Music Award y el International Film Music Critics Award (IFMCA).

Entre los títulos más recientes hay que mencionar *Lo nunca visto* (Marina Seresesky, 2019), *Durante la tormenta* (Oriol Paulo, 2018), *70 Binladens* (Koldo Serra, 2018), *El hijo del acordeonista* (Fernando Bernués, 2018), *El guardián invisible* (Fernando González Molina, 2017), *Deep* (Julio Soto Gurrupide, 2017), *Inmersión* (Wim Wenders, 2017), *Ocho apellidos vascos* (Emilio Martínez Lázaro, 2014), *Savage Grace* (Tom Kalin, 2007), *Mama* (Andrés Muschietti, 2013), *La cumbre escarlata* (Guillermo del Toro, 2015).

Ha puesto, además, música a series de televisión como *Karabudjan* (2010) y *Gominolas* (2007) y para Netflix *Apaches* (2017), *La otra mirada* (2018-19) y *Diablero* (2019). Para HBO España realizará *Patria*, basada en el exitoso libro de Aramburu, así como para teatro.

Ha dirigido, entre otras, a las Orquestas Sinfónicas de Euskadi, Comunidad de Madrid, Málaga, Navarra, Principado de Asturias, RTVE, Sevilla, Radio de Budapest, Phillarmonia de Londres, London Metropolitan y Orquesta Nacional Checa. Asimismo ha producido álbumes y conciertos en directo de Amancio Prada, Ken Zazpi, Raphael, Doctor Deseo y Pasión Vega, entre muchos otros.

Prezioa / Precio:

15 €

Salmenta / Venta:

- [tickets.kutxabank.es](http://tickets.kutxabank.es)



- **Algortako Kultur Etxea**  
Villamonte, A-8  
T. 94 491 40 80
- **Romo Kultur Etxea - RKE**  
Santa Eugenia plaza, 1  
T. 94 466 00 22
- **Muxikebarriko txarteldegian, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik**  
En taquilla de Muxikebarri, desde una hora antes del inicio del concierto.



**Getxo**  
*bizi ezazu*



EUSKADIKO  
ORKESTRA



**Getxo**  
KULTUR ETXEA  
*bizi ezazu*